

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA SAILA

1371

EBAZPENA, 2018ko martxoaren 13koa, Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena, zeinen bidez aldatzen baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren III. eranskina «Titulazioen eta espezialitateen taula»; agindu horren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren bidez (EHAA, 2012-09-11koa) onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia; II. eranskinean, Espezialitateen eta Irakasgaien zerrenda biltzen da, eta III. eranskinean, irakaskuntza-maila ezberdinetan espezialitateen zerrendetan sartzea ahalbidetzen duten titulazioen taulak.

Agindu horren azken xedapenetatik bigarrenaren bidez, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari gaitasuna ematen zaio, premia badago eta dagokion ebazpenaren bidez, ordezkaritza sindikalarekin dagokion negoziazioa egin ondoren, ikasturtean zehar eta bereziki birbarematze-prozesu bakoitza hasi aurretik, taulan jasotako espezialitateen bat emateko gaitzen duten titulazio berriak sartzeko, edo lehendik daudenak aldatzeko, akatsak aurkitzen badira edo dagokion txostenaren ondoren. Horretarako, batzorde bat eratuko da, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzako teknikari batek, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikari batek, Unibertsitate Zuzendaritzako teknikari batek eta Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskari batek osatua. Batzorde horrek aztertuko ditu sartze berriak, aldaketak eta baliokidetzak, eta dagozkion proposamenak egingo dizkio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari.

Adierazitakoaren arabera, zenbait espezialitateetako zerrendetan sarbidea ematen duten titulazio berriak gehitu beharra ikusi da aipatu batzordeak titulazio horietako ikasketak planei eta titulazio horietan jaso gabe zeuden zenbait espezialitate emateko egokierari buruzko azterketa egin ostean.

Halaber, Ile Apainketa espezialitatearen (1564) zerrendan sartzeko aukera ematen duten titulazioen taulan antzemandako akatsa zuzentzen da. Ile Apainketako Estilismoko eta Zuzendaritzako goi-mailako teknikariaren tituluak agertu behar baitu zerrenda horretan: izan ere, goi teknikariaren titulu hori Ile Apainketako Teknikari Espezialistaren tituluaren baliokidea da eta azken hau espezialitate horretan irakasteko baliokidetzat jotako titulu bat da, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera.

Bestalde, Nekazaritza Produkzioko Eragiketak (1544) espezialitatearen izenean akats bat ohar-turik, zuzendu egiten da.

Azkenik, Arkitektura ikasketak dituztenen Matematikako zerrendan eta/edo Curriculum desberdinak eratzea: zientzia eta teknologia zerrendan sartzeko kidetasuna aldatu egiten da.

Horretarako eratutako batzordeak egin dituen aldaketak ebaluatu ditugu, eta sindikatuen ordezkariekin negoziatu ostean, honako hau

EBAZTEN DUT:

Honako aldaketa hauek egitea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren III. «Titulazio eta espezialitateen taulak» eranskinean –agindu horren

bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia--:

– Titulazio berriak sartzea irakaskuntzarako espezialitateak emateko gaitzen dutenak, ebazpen honen I. eranskinean adierazitakoaren arabera.

– Arkitektura ikasketak dituztenen Matematikako zerrendan eta/edo Curriculum desberdinak eratzekoa: zientzia eta teknologia zerrendan sartzeko kidesuna aldatu egiten da, behar diren kasuetan, 2. kidesunetik 1. kidesunera, ebazpen honen II. eranskinean adierazitakoaren arabera.

– Titulazio eta espezialitateen tauletako espezialitate baten izenean oharturiko akatsa zuzentzea, ebazpen honen III. eranskinean adierazitakoaren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

1. kidesuna emango zaie Arkitektura ikasketak dituzten eta Matematika espezialitatearen zerrendan 2. kidesunarekin eta/edo Curriculum desberdinak eratzekoa: zientzia eta teknologia zerrendan 2. kidesunarekin sartuta dauden pertsoneri, behar diren kasuetan: kidesun berriaren esleipena 2018-2019 ikasturterako zerrenden birbarematze-prozesuaren barruan egingo da.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.– Zerrendak irekitzeak

Ebazpen honetan aurreikusten diren aldaketak ez zaizkie berau indarrean sartu aurretik zerrendak irekitzeko deitutako prozedurei aplikatuko.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Zerrendak irekita mantentzea.

Ebazpen honetan aurreikusten diren aldaketak ez zaizkie berau indarrean sartu aurretik zerrendak irekita mantentzeko prozeduretan egiten diren eskaerei aplikatuko.

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Zerrendak birbarematze-prozesua.

2018-2019 ikasturterako zerrendak birbarematze-prozesuari aplikatuko zaizkio ebazpen honetan aurreikusten diren aldaketak.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

2018ko irailaren 1etik aurrera ekarriko ditu ondorioak ebazpen honek.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek ez dio administrazio-bideari amaiera ematen, eta, beraz, ebazpen honen aurka, gorako errekurtoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 13a.

Langileriaren Kudeaketako zuzendaria,
KONRADO MUGERTZA URKIDI.

I. ERANSKINA**BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE-HEZIKETA
KIDEGOA: BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK****– Frantsesa (0102) – a) eta b) azpiatalak**

Gradua Ingeleseko eta Frantseseko Ikasketetan gehitzen da.

– Ingelesa (0103) – a) eta b) azpiatalak

Gradua Ingeleseko eta Frantseseko Ikasketetan gehitzen da.

– Musika (0131) – a) eta b) azpiatalak

Gehitzen dira:

Lizentziaduna: Historia, Artearen Historia espezialitatea (Musikologia atala).

Lizentziaduna: Musikologia.

Gradua Musikologian.

Gradua Musikaren Historia eta Zientzietan.

Goi mailako edozen unibertsitate-titulazio eta irakaslearen titulua izatea, irailaren 10eko 2618/1966 Errege Dekretuaren arabera.

– Fisika eta Kimika (0202) – a) eta b) azpiatalak

Gehitzen dira:

Gradua Nanozientzia eta Nanoteknologian.

Gradua Marinaran.

Gradua Bioteknologian.

– Ekonomia (0205) – a) eta b) azpiatalak

Lizentziaduna: Giza Zientziak: Enpresa gehitzen da.

– Matematika (0224) – c) azpiatala

Gradua Negozioen Kudeaketan gehitzen da.

– Biologia eta Geologia (0255) – a) eta b) azpiatalak

Gradua Nanozientzia eta Nanoteknologian gehitzen da.

– Laneko Prestakuntza eta Orientabidea (0298) – a) eta b) azpiatalak

Gehitzen dira:

Lizentziaduna: Giza Zientziak: Enpresa.
Gradua Negozioen Kudeaketan.

– Teknologia (0401) – a) eta b) azpiatalak

Gradua Marinaran gehitzen da.

– Curriculum desberdinak eratzekoa: zientzia eta teknologia (0989) – a) eta b) azpiatalak

Gradua Bioteknologian gehitzen da.

– Enpresen Administrazioa (1501) – a) eta b) azpiatalak

Lizentziaduna: Giza Zientziak: Enpresa gehitzen da.

– Ostalaritza eta Turismoa (1512) – a) eta b) azpiatalak

Gradua Negozioen Kudeaketan gehitzen da.

– Osasun Prozesuak (1519) – a) eta b) azpiatalak

Gradua Fisioterapian gehitzen da.

– Helduen Hezkuntza: Ezaguera zientifiko teknologikoaren esparrua (1585) – a) eta b) azpiatalak

Gehitzen dira:

Gradua Bioteknologian.
Gradua Arkitekturan.
Gradua Arkitektura Oinarrietan.

BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE-HEZIKETA**KIDEGOA: LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOKO IRAKASLEAK****– Administrazio Kudeaketako Prozesuak (1541) – 1. kidesuna**

Lizentziaduna: Giza Zientziak: Enpresa gehitzen da.

– Merkataritza Prozesuak (1542) – 1. kidesuna

Gradua Negozioen Kudeaketan gehitzen da.

– Ite Apainketa (1564) – 1. kidesuna

Iteapainketako estilismoko eta zuzendaritzako goi mailako teknikariaren titulua gehitzen da.

– Osasun eta Laguntza Prozedurak (1567) – 1. Kidesuna

Gehitzen dira:

Diplomaduna: Fisioterapia.

Gradua Fisioterapian.

II. ERANSKINA**BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE-HEZIKETA
KIDEGOA: BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEAK****– Matematika (0224) – a) eta b) azpiatalak**

Gehitzen dira:

- Arkitektura.
- Gradua Arkitekturan.
- Gradua Arkitekturaren Oinarrietan.

– Matematika (0224) – c) azpiatala

Baztertzen dira:

- Gradua Arkitekturan.
- Gradua Arkitekturaren Oinarrietan.

– Curriculum desberdinak eratzekoa: zientzia eta teknologia (0989) – a) eta b) azpiatalak

Gehitzen dira:

- Arkitektura.
- Gradua Arkitekturan.
- Gradua Arkitekturaren Oinarrietan.

– Curriculum desberdinak eratzekoa: zientzia eta teknologia (0989) – c) azpiatala

Baztertzen dira:

- Arkitektura.
- Gradua Arkitekturan.
- Gradua Arkitekturaren Oinarrietan.

III. ERANSKINA

BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE-HEZIKETA

KIDEGOA: LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOKO IRAKASLEAK

- Esaten duen tokian:
Nekazaritza Produkzioko Eragiketak (1544).
Esan behar du:
Nekazaritza Produkzioko Eragiketak eta Tresneria (1544).